

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

“Oihu” **Euskal Herriko emakume gazteei zuzenduta** dago, 14 eta 40 urteren artean kokatzen direnei zehazki; izan ere, adin tarte honetan kokatzen dira emakume erasotuenak, hau da, gaez kalean ibiltzeko ohitura dutenak eta zoritxarrez, arrazoi horrexegatik, bortxatuak izateko arrisku handiena dutenak.

Gure deitzaile nagusiak aipatutakoak izan arren, 40 urtetik gorakoek ere, noski, deitzeko aukera izango dute. Hortaz, **plataforma multilateral**a izango da gurea; hots, bi bezero-talde baino gehiago ditugu, eta enpresaren balio-eskaintza desberdina da segmentu bakoitzerako, baina elkarren artean lotuta dago. Erabiltzaileek arrazoi desberdinengatik dei dezakete, hala nola, beldurragatik, edota soilik prebentzioagatik, baina denek izango dute komunean sentimendu bat: babes eza.

Zerbitzua deia egiten duenaren egoeraren arabera **moldatuko** da. Batetik, konpainia edo prebentzio bila dagoen emakume elkarrizketa bat emango zaio, zeina langilearen eta bezeroaren artekoa izango den: oso garrantzitsua iruditzen zaigu telefonoaren bestaldean benetako pertsona bat aritzearena, honek ahots automatiko batek baino segurtasun handiagoa sortarazten duelako eta baita lasaitasuna ere. Bestetik, norbait atzetik duela badakienak, edozein koloreren izena den kodea esan eta gure langileak berehala jarriko dira harremanetan poliziarekin, arriskuan dagoenari zer egin behar duen zehazten dion bitartean.



Euskal Herri mailan hasi bagara ere, pixkanaka-pixakana gure **mugak zabaltzen** saiatuko gara estatu mailara iristeko asmoz. Eta hau aurrera eramateko lau hizkuntza erabilito ditugu (euskara, gaztelera, ingelera eta frantsesa).

Proiektua zabaltzea ez dugu ezinezko **helburu** bat bezala ikusten, izan ere, tamalez, gaur egun oraindik ere “Oihu” bezalako zerbitzu baten beharra ukaezina da.

